

AURKEZPENA

*Su andija egiteko, gur lodija ixetuteko,
lenengo abarrari ezarten yako sua,
ta onegaz ari gero*

Ez da erraza izaten batzuetan aurrera egitea. Ezta barraskiloak bezala poliki egingo dela onartuta ere. Ezta, su handia egiteko asmoa alde batera utzita, abarra soilik piztu nahi denean ere. Batzuetan kolpea handiegia izaten da, zutik segitzeko. Seko lurrera botatzen zaitu, eta ezin zara altxatu.

Halako kolpe bat jaso genuen iazko urtea bukatzera zihoala. Isabel Gomez Txurruka hil egin zen istripuan. Beste gauza askoren artean, GOGOAre sortzaile eta aurkezpen laburren atalaren arduradun eta idazle oparo izan zen. Haren heriotzaren kolpeak oraindik zorabiatuta gauzkan arren, segitzea besterik ez zaigu geratzen, nahiz eta hori ere neketsu zaigun.

Itzulpenen atalean, logikaren historiako handienetako baten testu klasikoa ekarri digu alemanetik euskarara Jule Goikoetxeak: Kurt Gödelen «Logikako kalkulu funtzionalaren axiomen osotasuna». Ez da testu samurra. Inguru hauetan eskaintzen den logika ikastaro bat baino gehiago beharko du gaien pittin bat sartu nahi duenak. Ongi etorria izango da.

Hizkuntza eta giza ezagutzaren alorrean xx. mendearen bigarren zatiak emandako izenik handienari eskaini diote begiratu zabal eta zehatza Ricardo Etxeparek eta Aritz Irurtzunek: Noam Chomskyri. *Syntactic Structures* liburuaren argitalpenaren 50 urte bete diren honetan, ezin aproposagoa dirudi GOGOAK «Noam Chomsky: gramatikaren teoria eta hizkuntzaren filosofia» lan zabala ekartzea.

Artikuluen atalean, historian zertxobait atzera garamatza Esteban Antxustegi eta Cristina Lasaren «Argien Mendeko espirituaz eta beraren ironiaz» lanak. Denboran atzera, esan nahi da; arrazoiaren aldeko eta sineskerien kontrako lanean geroztik egin baita atzera, akaso.

Argien Mende hartatik hona intelektualek izan omen duten gainbehera, hain zuzen ere, eta gaur egun betetzen duten tokia ditu aztergai Ane Larrinagak «Produktzio kognitibo modu berriak: intelektualak gizarte mugimendu garaikideetan» lanean.

Beti bezala, liburu kritikek, aurkezpen laburrek eta kongresu, jardunaldi eta ikastaroen berriek osatzen dute GOGOAREN ale hau ere.

Isa ez zen ez barraskiloaren martxa geldoan ibili zalea. Baina GOGOAK ez dauka aurrera egiteko beste modurik. Batez ere Isaren galerak eragindako zorabioaren ondoren.

Zuzendariak

Donostian, 2007ko apirilaren 25ean